

# hariari tiraka

## XABIER ELORRIAGA

Aktorea



«Hamar urte  
barru batzuek  
ukatu egingo  
dute igandekoa»

■ **Igandean. Hondarribiko Alardeko istiluetan jo egin zintuzten...**

Nire ondoko kameralari bat jipoitzen ari zirelako sartu nintzen erdian. Lurrean erorita zegoen bati ere jipoi ikaragarria eman zioten. Irainka eta joka aritu zirenek bazekiten jarduera horrek ez zuela ondorio penalik izango.

■ **Espektakulu tristea izan zen...**

Ez dago ulertzerik beste zenbait kasutan horren solidarioa eta eskuzabala den herrian nola ez den arazoa hizketaren bidez lehenago konpondu. Zer indar dute Alardearen inguruan mugitzen direnek komunikabideak, agintariak eta erakundeak makurrarazteko? Euskarak berak oraindik itxita dauzka Alardeko ateak.

■ **Haserre zaude komunikabide batzuekin...**

Denok dakigu zer indar handia daukaten komunikabideek eta nola eragin dezaketen gizartean mentalizazioan. Alardean emakumeekin gertatutakoa oso larria da eta komunikabide batzuek larritasun hori arintzeko saioa egin dute.

■ **Batzuek erreferendumaren irtenbidea proposatzen dute...** Ez dut imajinatu nahi presio egoera erreferendumaren aurreko hila-betea. Emakumeena esku-bidea da eta ez dago zertan bozkaturik.

■ **Non ikusten duzu irtenbidea?**

Ez nintzateke harrutuko hamar urte barru igandean joka ari izan zen batek baino gehiagok ukatuko balu igandekoa. Zer egingo dute urte honetan Burgomaestrek eta bere azpiko agintariek arazoa konpontzeko? Belduko al dira «urtebete daukagu honi irtenbide duin eta jatorra emateko?» esateko? Eta haiek egiten ez badute, goiz edo berandu, beste agintea maila batek egin beharko du. X

## zuzendaritari

### Pelma eta Louise

Ez naiz Felix Linaresen jarratzaile sutua, baina irratian ari denean gustokoa dut, besteak beste, euskarazko irratigintzan ari den askok ez bezala, jario polita eta okurrentea duelako. Jolastaria da, irudimentsua eta aberatsa. Bere iritziarekin ez nator bat askotan, baina hori baliteke nere arazoa izatea eta ez berea.

Lehenago asteartean *Telma & Louise* filmea ikusteko asmoarekin jarri nintzen oparitu berria didaten telebistaren aurrean ETB2ko *La noche de...* sailaren barruan emititu behar baitzuten. Garai eseri nintzen lehendik biz-pahiru bider ikusita neukan filmearen hasierako hainbat xehetasunen gainean dudak neuzkalako. Baina harrututa geratu nintzen filmea eman aurretik pelikulari buruz ia ordu erdia iraun zuen saio bat egin zutelako. Felix Linaresen aurkezpena zuen ikusi behar nuen filmea *txikitu* eta *xehetu* zuen saioak. Ondo dago, ondo egon ezezik beharrezko eta lagungarri ere bada, ikusi behar dugun filmearen xehetasunekin saio motz bat osatzea. Baina, mesedez, ez *akabatu* filmea hasi aurretik. Horren saio luzea gogaikarria egiten da eta, nere kasuan, oherabide.

● **Gorka Alonso**  
Zornotza (Bizkaia)

### Tema ta lau hitz

Lehenik eta behin barkatzeko eskatu beharko, bai izenburuaren hitz joku kaskarragatik, bai simul batez baliatzeagatik, ezinbestez pertsonala eta ezin subjektiboagoa. Baina *Thelma eta Louise* —hola idazten ote da?— berriz ikusitakoan bi emakume horien patuari Euskal Herriaren antza hartu diot: mila polizia atzean, amildetia aurrean eta filmeko gizon baleko bakarria oihuka, «zenbat aldiz eman beharra zaie atetik emakumeoi?». Oraindik orain izan ziren deportatuak, noiznahi Frantzia, Uruguay, Belgika, Mexicoko herbesteratuak, errefuxia-

tuak, presoak, atxilotuak, bihar gazte *tratatu*, guraso zigortu, intsumiso inhabilitatuak...

Bitartean gure bi autogobernuak etxekolantetan, senarraren bazkarilegea betetzen, bazkalondoko kulebroiaren zain.

Eskubide zapaldu guztien aldeko borrokek badute elkarrekiko paralelismoa, eta emakumezkoek pertsona eta emakumezko bezala errealizatu ahal izateko gizartea behar duten neurrian guk pertsona eta euskaldun bezala behar dugu Euskal Herria. Emakumezkoek badute Thatcher eta Loyola de Palacio, guk Atutxa eta Loiolako Jauregi, baina nork jarriko luke zalantzan borroka horien lorpenak emakume eta euskal herritar guztienak izateko beharra?

Jakina, ezin bildu mugimendu feminista Thelma eta Louiseren sinbolismo eta komerietara; eta ezin esan euskal borroka bi ema-

kumeon aurreranzko ihesaldiaren dinamikan sartua denik. Astakeria eta bidegabekeria de xente egin dugu eta egiten ari gara —halakolente multifokal bat erabili beharko genuke gure ekintzen eta hauen ondorioen alde guztietatik, orokorrak eta partikularrak bereizteko—. Dena den, ez da hori poliziei amore emateko arrazoia, Madril eta Parisek aratu turiko munduaren perspektiba baizik.

● **Angel Garcia Etxandi**

Iraizotz (Nafarroa)



— Urduri ikusten zaitut... — Izan ere, bihar bukatuko zait fregona kontratua.  
— Ene!, zein arriskutsua. — Bai.

## seiko urrea

### Emilio Lopez Adan



### Gaztetxoak kartzelara!?

Giroa ez da hauta. Euskadin badirau erreboltarako grinak eta gauza ederra da. Bestalde, erreboltaren eta kaleko istiluen protagonista anitz gaztetxoak dira eta hau ez da hain atsegina. Biolentzia iraultzailea zilegia da. Iraultzaileen biolentzia indar harremanen arabera egiten da eta herriaren oneritza bilatzen du. Ez da katarsi edo mendeku hutsa, baizik eta kodigo moralaren eta estrategia helduaren uztartzea, garaitzeko. Horregatik, biolentziaren inimiztara gaztetxoaren eskuetan laga eta utzikieria honen saihesten ondorio moral eta sozialaz ez ikusiarena egin, ez dira gauza zuhurrak. Gazteek emankortasuna eta errebelia biltzen dituzte eta borrokan aritzea ez zaie itsusi. Alta, askatasuna ezin onar daiteke erres-

ponsabilitatearekin bat ez bada. Edozein erantzun ona dela edota edozein ondorio-  
ren erantzule bakarria etsaia dela esatea, ganorabakeriak dira.

Gaztetxoek badituzte biolentzia gaizki erabiltzeko ahal handiak; heldutasun intelektual eta nortasuna oraindik garatu gabe, eraginerrazak dira, oldarkorrak eta, batez ere, gupida sentitzeko sobera zurrinak. Lagunak ez direnak etsai kontsideratzeko joera erraza dute eta inori ez diote deus barkatzen. Biolentzia iraultzaileen biktimak nornahi direnean, biolentzia honen bere zinezko funtzioak galtzen ditu, eta haustura sozialaren iturria bihurtzen da. Gaztetxoak biolentziaren jabeak izan direnean iraultzaren gertakari ilun ilunen protagonista izan dira, krudelkeria nagusi. Ikas dezagun Txinako Iraultza Kulturallean eta Khmer Gorrien historian, besteak beste.

Haien oldarra indar eraikitzailea izan dadin balore argitzaile esplizitoak behar dituzte. Balore horiek badira, ez dira inbentatu behar. Estatuaren komunikabideak eta edukazioak ez dizkiete emango. Ezker iraultzaileak berak eta askatasunaren alde borrokatzen dutenek eskaini behar dizkiete erreferente moral eta estrategiko argiak. Zapalkuntzak sortzen duen biolentziari behar bezalako edukina ematea mugimendu iraultzaile osoaren erantzukizuna da.

Bere aldetik, estatuak ez du biolentzia honen edukin politikoa onartu nahi. Gazteen delinkuentziaren barnean tratatu nahi du, besterik gabe. Eta, bideokamara salartariekin batera, adin penala hamabi urtera

jaitsi baino ez zaio burutu. Alor honen barnean ere, astakeria galanta. Gure inguruko erresumetan bada gazteen hobena tratatzeko tradizioa, ez arras zuzena ez, bai iraunkorra eta hausnartua. Gaztetxoaren gehiegikeriak, oro har, adaptazio sozialaren huts egite gisa kontsideratzen dira. Haurrei zor zaizkie babesa, laguntza, begiramena, heziketa; zigor penalak soilki salbuespen gisa aplikatzen dira, zirkunstantziak edo nortasuna oso bereziak direnean. Alta, arazoak jarraitzen du: ez da beraz jokamolde arras zuzena. Jarrera arrunt errepresiboak ez du fruitu hoberik eta balore positibo anitzen ukazioa dakar.

Zergatik, ordea, gobernuaren proiektu hori? Bada, Partidu Popularraren modeloa ez dira inguruko demokrazia liberalak. Hortaz jantzi dira baina, jatorriz, frankismoaren kumeak ditugu. Frankismoak bazituen adin txikioentzat auzitegiak eta erreformatorioak. Itzelak, beldurgarriak. Etxetar siniestro horiek oraindik ematen digute hotzikara. Gerlan hil edo gerla osteko preso gorrien haurrak sartu zituzten erreformatorio horietan. Gorriak eta asto beltzarenak ikusteko: zigorrak, humiliazioak, gosea, hotza. Hots, Popularraren proposamena ez dagokie soilki sozietatearen eskakizunei; berriz ere gorri eta separatisten umeak zigortzeko berpiztu nahi dituzte beren erreformatorioak. Eta gorriekin hasiz, ildo egina daukate beste gainekoentzat ere, bereziki sozietatea mehatxatzen duten politizatu gabeko gazte marginatuentzat. Ez zaie utzi behar eta hortaz demokrazia guztien erantzukizuna konprometitua dago.